

egunekoa

Ion Arregi

(Zutik-eko kidea eta Kolonbiari buruzko hainbat libururen egilea)

Presidentearen erradiografia

Presidentearen zintzotasuna. Amnesty Internationalek eta Kolonbiako Legelarien Batzordeak antolatuta giza eskubideei buruz hitz egiteko lehendakari gaiek jendaurrean egindako ekitaldi batean, Alvaro Uribe Velez, NBEk Kolonbian duen ordezkaria bertan zela, honako erantzun hau eman zuen gerraren ondorioez eta herritarrentzako bermeez galdetu ziotenean: «Agintea da giza eskubideen oinarria, eta gobernuak komeni zaizkion gomen-dioak onartuko ditu». Eta geroago: «Herriak estatutu antiterrorista zorrotz bat behar du».

Susan Leek eta giza eskubideen beste aldezele batzuek inpunitateaz, paramilitarismoaz eta aipatu estatutua barne hartzearen Konstituzioa erreformatzeko aukeraz galdetu ziotenean, esan zuen herriarentzat beharrezkoa zela agindu judizialik gabeko bizileku bortxaketa, atxiloteta eta kontrol telefonikoa legeztatzea, eta informatzaile sare nazional bat antolatuko zuela, agintariei subertsioaren presentzia ohartarazteko.

Agintari hautatu berriari ezin zaio ukatu ausarta denik, ideiak argi dituenik. Era horretan, militarren ohiko jokabide bat legeztatuko litzateke, eta eskualdeetan sitio egoerak ezarriko lirateke agintari zibilik gabe, Ariel Sharonen Jenin egindakoaren ildotik, eta, ondorioz, lehenik eta behin, herritarrak sarraskituko lituzkete, eta, ondoren, gertatua ikusteko leku horietara inor sartzeara eragotziko lukete, are NBE bera ere.

Kolonbiarren kontzientzietan Bojayan, Chocoko lurraldean, gertatutako giza-krisiaren oihartzuna entzuten da: 500

biktima paramilitarren, gerrillaren eta Armadaren arteko borroketan. NBEren txosten batek paramilitarismoari, FARC gerrilla taldeari eta Pastrana buru duen gobernuari egotzi die gertatutakoen erantzukizuna.

Inork ez du zalantzan jartzen presidente berria konstituzio formalki demokratiko baten babesean egindako hauteskunde batzuetan hautatu dutela, baina horrek ez du ezer adierazten presidentearen eta Kolonbiako demokraziaren funts demokratikoaren alde. Uribe Velezek oposizio demokratiko guztia desagerrarazi nahi du, eta herria ahal duen neurrian militarizatu.

Curriculum

Liberalismo disidentearen presidente berriak Medellingo alkatetza hartu zuen 1983an, eta bertan jarraitu zuen harik eta, Medellingo *cartel*-eko narkotzafikatzaileen goi-bilera batean esku hartzea leporatuta, Belisario Betancur presidentek kargutik kendu zuen arte.

Aerocivil-eko gerente kargutik ere kendu zuten. 1980-82 epean, Kolonbian oihartzun handiena izan duten esparru ofizialeko ustelkeria kasuetako bat gertatu zen. Garai hartan, *cartel*-ek, Medellingo bezala Calikoak ere, baimenak eta lizentziak lortu zituzten Latinoamerikako hegazkin-multzo ahaltsuena osatzeko; ondorioz, beren produktuak non garraiatu izango zuten, gerra zikinean esku hartzeko zer erabili.

Narkotrafikoaren esparruko industriari garrantzitsu batzuen kide komertziala izan zen, baina geroago haietako hainbat atxilotu, epaiatu eta kartzelatu egin

zituzten, Aeronautika Zibileko zuzendariorde izandakoa esate baterako —Cesar Villegas politikari eta industrialaria—.

Bitxia bada ere, Uribe Velezek ez zuen inoiz inolako problemarik izan, eta haren jarduerak ez zituzten ikertu, ez narkotrafikoagatik, ez eta paramilitarismoarekin izan zitezkeen loturengatik ere.

1995etik 1997ra bitarte Antioquiako gobernadorea izan zenean, Batasun Patriotikoa mugimenduaren gotorleku politiko nagusietako bat hondatu zuen operazioa gertatu zen, *Itzulera Operazioa* izenekoa. Ameriketako Estatu Batuetako aldizkari baten arabera —*News Week*—, Alvaro Uribek egin zuen hitzaldi nagusia Rito Alejo del Rio eta Fernando Millan jeneralei jasan zituzten irainengatik eskaintako omenaldian; izan ere, 1996 eta 1997 bitartean sarraskiak eta beste izugarrikeria batzuk leporatu zizkieten talde paramilitar batzuekin zerikusia izan zutelako kendu zituzten kargutik. Besteak beste, Del Riori buruz pertsona ohargarria zela esan zuen.

Garai berekoa da presidente hautatuaren apustu ospetsuenetako bat. Convivir izeneko kooperatibak eratu zituen Antioquia baketzeko, eta, horretarako, zibilak antolatu eta armaz hornitu egin zituen. Paramilitarismoa legeztatzearen asmoaren ondorioz, askoz odol gehiago isuri zen sindikalisten, giza eskubideen aldezeleen eta gizarte buruzagien artean.

Erregimenaren oposizioa laster eta behin betiko garaitzeko zein matxinatuak zapaltzeko esperantzak oihartzun

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

zutabea

Juan Ramon Madariaga

Goietan eta gudetan

Wislawa Szymborskak, 1957an *Yetiri deika* izeneko poemarioa idatzi zuen. Poema eder guztien artean *Himalaiara burutu ez zen espedizio baten oharra* izenekoa agertzen zen. Lerro haietan Wislawa Himalaiako mendien eguratsa azaltzen saiatu zen, Himalaia bera nolakoa izan zitekeen.

Beraz, hau da Himalaia. / Mendiak ilargirantz korrika. / Aireratzearen unea / zeru urratuan geldirik. / Zuloz betetako hodeizko basamortua. / Ezer ez. / Oihartzuna: zurtasun mutua. / Isiltasuna.

Honela zioen poetak, eta gero Yetiri deitzen zion, itzul zedin, han ez ilargi ez lur, eta malkoak izotz izaten direla. Ez dakit titulua bera presagio hutsa izan zenetz bere garaian, baina Himalaiako tontorrek nekez ikusiko dute alpinistak datozen hilabeteetan. Baliteke Alberto, Juanjo, Jon eta Beloki, edo Jose Carlos Tamayo eta besteak, han Makaluko txapela ukitu nahian oraindino dabil-tzanak, azkenak izatea, mendi erraldoiz josiriko herrialdea den Nepal miresgarrian iskanbilak baitaude nonahi, malda malkartsuetan azienden ordeztutakoak agertu dira, tiro-hotsak hango artzain gazteen kantu zolien lekuan, mendizale ibiltarien ordeztutako tropa militarrek. Zer tristezia!

Eta Nepalen ez bada, Pakistanen izango da. Indiako soldaduak eta Pakistanekoak aurkeztutako jarriko dira sakrifizioarako prest, guda luze-agoa, mingarriagoa eta krudelagoa hastear baitago. Hango Palchan-Kangrik, Chogolisak, Chogorik edota Gasherbrumek ez dute bisitarik jasoko, ez du inork bere aire eskas hori arnastuko, ez du inork munduaren kurbatura hori inongo tontoretik ikusiko. Jafar lagunaz gogoratuko naiz.

Eta Pakistanen ez bada Pamir-en izango da. Kyrgyzstan urrun hartan gobernuarekiko gatazka batean hasi baita herria. Beraz, Lenin edota Khan-Tengri eta Pobeda mendietako elurretan ez da urratsik inprimatuko haizeak berriz ezaba dezan, behin eta berriz ezaba dezan.

Eta zuek, azkenak etorri zaretenok, zorioneko azken horiek, entzun diozue Wislawari Yetiri deika? Edo berari erantzuten *Tapaiko naam ke ho?* (zein da zure izena?)

seiko urrea

Andolin Eguzkitza



Stephen Jay Gould hil da

Duela 24 urte gertatu zitzaidan. Ameriketara heldu berria nintzen eta urte hartako gabonetan New York-era joan nintzen laguntzaile nintzen irakaslearekin. Egun baten, gauvaldera, New Jersey-ko familia judu aberats baten etxera joan ginen ospatzen ari ziren festarako gomitzioa jasota. Eta ez dut egun hori inoiz ahantzi, ez eta inoiz ahantziko, gertakari biren-gatik. Sartu eta behingoan etxekoandre-ak itaundu zidan non nengoen ikasten, eta Iowa-n erantzutean, gizonaren agona zuzenduta galdetu zion: «John, non dago Iowa, Mendi Arrokatzen aurrean ala atzean?». Handik hiru urrats egin baina, eta etxeko zahar baten ezagutza eman zidaten. Hark nongoa nintzen

egin zidan galde, eta Euskal Herriko nintzela esatean, poz ikaragarriaz, 36ko gerla-garaian berak euskal jendearen alde egindako borroka eta manifestazioak kontatu zizkidan. Horra hor, esan nion nik orduan neure buruari, amerikar ezjakina eta judu internazionalismoa biak aurkientza berberera bilduta.

EGUNKARIAREN irakurleak badakike honezkero nor den Stephen Jay Gould, paleontologo amerikar famatua, eta idazle bikaina, bere zientziaren alorrekoak liburuen bidez zabaltzeagatik arras famatua, eta berak guri agerian utzi bezala, judua eta ezkertiarra. Hain zuzen ere, joan den urteko abenduan Euskal Idazleen Elkarteak antolatutako Prosa Zientifikoki buruzko Biltzarrera gomi-

tatu genuena, eta guri agur egiteko aforian, kopa jasota, ondoko topa proposatu ziguna: «Izan dadin albait lasterren Euskal Populua herri libreen arteko kidea».

Horregatik ez dut harekin emandako egunok sekulan ahaztuko, ez eta bere mintzaldian esandakoak ere, den-denak graziaz eta zehaztasunez adieraziak. Baina ezta ere, zientziak irakurtzea plazer bihurtzeko egindako ahaleginagatik, hainbat liburu eta artikulutan frogatu duen legez. Euskaraz osorik, Gaiak argitaletxeak ateratako eta Jose Ramon Etxebarriak maisukiro itzulitako *Bai bizi zoragarria* dago. Eta Euskal Herrian ez zaizkio jarraitzaile sutsuak falta. Baina bat da aipatzekoa batez ere, Leioan irakaslea den Kepa Altonaga, obra zoragarri bi argitaratu dituena Elhuyarrek: *Folin markesa* eta *Armand David panda-ren aita*. Barraskiloak eta euskaldunak lehenengoaren helburu direla, eta Ezpeletako apez menturazale eta zientzialaria bigarrenarena.

kornerra

Mikel Elorza

Urrutiko gerrak

Laster batean has daitezke pakistandarak eta indiarrek elkar akabatzen. Jainkoa, aberria, lurralde zati bat... Arrazoi pisuzkoren bat izango da tarteko. Jana lortzea ez; nahiz eta herri bietan baden nahikoa gose. Pobre mordo bat hiltzeko moduko gerra da, demografikoki onuragarria —aberatsak Londresko etxean harrapatuko ditu; semearen *college*-ko graduazio-ekitaldira joanak—. Arma-ekoizleak ere lerdea dariela egongo dira, halako gatazka masiboa pagotxa itzela da. Arma atomikoen kontuak ukitu berezia ematen dio demari, baina nik uste ez dituztela erabiliko. Gehiegikeria nuklearrak gerrako nagusiak ere jo ditzake eta hori ez zaie komeni, ez batari ez besteari. Gu urruti harrapatuko gaitu. Edo ez. Orain hain sasoiko dabilen himalayismoak igarriko du. Lorpen kopurua jaitsiko zaigu. Lorpenak edo, 8.000ko argotean esanda (subkontzientea?), konkistak.

kornerra@egunkaria.com